Erref. kodea: LAF-219-191 [54]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Lekuona, Michel: *Partitzeko tenoria, huna nun den ethorria*

Partitzeko tenoria, huna nun den ethorria

Frango gazterik ezarri naute burhasoek eskoletan
Mintzatzen eta izkiriatzen erdaraz ikas-dezadan
Eskola pochi bat on delako zer nahi ofiziotan
Konduak egin behar direla gero ere kontrabandan
Behar orduan bere burua erdaldun ausarten kontra
Ongi debekatzen jakitea etzitzaioten sobera.
Horra beraz nun goiz eder batez, orduan udazkena zen
Burhaso eta herri maitea penekin utzi nituen
Maite nituen lagun guziak herrian gelditu ziren!
Beraz ez da ez harritzekoa biziki triste banitzen!
Bihotza estu estua nuen lehen zortzi egunetan
Nik hemen nehor ez ezagutzen, arrotz bat bezela nintzan
Alimaleko etche tzar huntan erdi galdua nabilan
Noiz zozokeri bat egiteko bethi beldurrak ikharan!
Erdaraz deusik ez jakin eta ez orai bezin ausarta
Lotsatzen nintzen den mendreneko galde baten egitera!
Arratsetan maiz loak-hartzean gogorat jiten zitzautan
Etchekoak han zirela denak bilduak sukaztean
Lo egitera joan baino lehen elgarrekin othoitzean
Eta nigar bat naizean behin ichurtzen nuen ohean
Bainan holako bizi kiratsak etzuen ez iraun behar
Lagunak beraz egin nituen egun batzuen buruan
Laster pilotan hasi baiginen Eskualdun ginen kasuan
Bainan dembora frango pasa da maitatu artean elgar.

Josteta, pena, lan, adin berak, gustuak ere bertsuak
Nola beraz ez elgar aditu pasatzeko egun onak ?
"Cafard" delako eritasuna laster kasatzen ginduen
Pilotan edo hichtorioak kondatzen hasten baginen !
Gaur lan solera, bihar erichko, etcheko berriak bakhan !
Hortaz gainerat gurekin maichko aphezak aldi tcharrean !
Nola beraz alegera bizi holako leku batean ?
Beharrik ziren nere lagunak bethi umore onean !
Ba ! "Leku ona" suertatu da bihotz garbien artean
Bertzela nola ez descuraja ainhitz oren ilhunetan !
Bainan huna nun den hurbildua partitzeko tenoria
Elgarretarik urrundu behar, hau ez duk ahatik hobia !
Orai bethiko utzi beharko maite nituen lagunak !
Anaiak baino ainhitz gehiago, maite nituen lagunak !
Nere biziak diraeno ditut izanen bethi gogoan
Heiekin egin irri gochoak sei urthe luzez eskolan.
Ba ! elgarrekin egon bagine bur huntan bizi guzian
Ez ginen trichte ~~sekul~~ nihoiz izanen zer nahi gerta munduan !
Bertzeak baino ainhitz gehiago bat maite dut horietan !
Haren uzteak pen handiena emaiten daut bihotzean
Ez baitut hura baino gehiago nehor maitatu munduan !
Adin bertsua, muthil leiala, ile beltchaua buruan
Begi urdin, bisai argia, boza berriz zoin gochoa !
Zoin irri ezti maitagarria eta bihotz alegera !

Oren gochorik iragan dugu bakharrik choko batean
Ez ! haren boza baino eztirik ez dut aditu sekulan !
Nik ez nakien deusik etzuen harek bere bihotzean
Nik bardin deusik sei urthe hautan ez diat gorde nerean !
Laster ohartuz trichte banintzen edo zerbeit uxenean
Bethi prest zen ni kontsolatzeko nere pena chagrinetan.
Ohartua naiz egi handia ziola "Montaigne" zaharrak :
" Munduan dela, beldur chagrinak, bozkario eta penak
Errechagoak dire jasaiten, ~~partituak~~ direnean partituak" !
Bethi hor nuen behar orduan kontseilu bat emaiten
Bardin laudatzen ninduen lazter zerbeit on egin orduko.
Geroztik biek aditu dugu Jainko maitearen deia :
Etharri nahi ginduen haren arthaldea bazkatzera,
Biek batean hitz-eman ere bihotza eta bizia.
Kartsuki dugu othoizten kunpli dadien gure deseina.
Hemendik urrun joan gogo du, ni berriz Eskual-Herrian
Jainkoak nahi badu seguik izanen gare agian
Bi aphez saindu eta khartsuak, bihotz alegerakoak
Sekulan elgar, zer nahi gerta, ahautziko ez dugunak.
Lagun maitea, orai adios erraiteko ez dut bozik
Partitze huntek zilatzen bainau bihotza erdi erditik :
Eskual-Herriko berri guziak maiz daizkitzut igorriko
Sekulan trichte balinbazare laster alegeratzeko.
Ni baino lehen deitzen bazaitu Jainkoak bere ondora

Ni jin artio zaude zeruko athean nere begira
Saindu guzien erdira biak eskuz - esku joanen gira !

Lécuona Michel

FSC
MIXTO
FSC® C001636